

TXINTXETAK



kurutzen da

BODOLOGUAK

MIKEL PAGADI EGOITZ LASA NAGORE ARANBURU





ZER DIRA BODOLOGUAK?

Bodologuak euskaraz eginiko antzezlan bat da.

Mikel Pagadi, Egoitz Lasa eta Nagore Aranburuk ezaugarri duten euskal umore apartarekin, gaur egungo gai desberdinak astinduko dituzte bakarrizketa nahiz elkarrizketa moduan:

Euskalduna izatearen burukominak, elizaren mundu zoragarria, gure elkarte gastronomikoak, euskaldunon oporrak, opari eta detalleak, etxeko animalien erroak, euskaldunok eta teknologia...eta beste gai batzuk jorratuko dituzte, hori bai, beti umorea oinarri bezela hartuta.

Baina kasualitatea! Justu emanaldia baino lehen ezkontza bat izan dute eta funtzioa *Bodologo* bihurtuko da. Elegante, zorrotz, petral eta xeibre, baina beti umorez gainezka.

Hauxe da *Bodologuen* helburua: guk esan eta zuek barre egitea.

Iraupena: 70 MINUTU.

Aktoreak: MIKEL PAGADI, EGOITZ LASA eta NAGORE ARANBURU.

Testuaren

egileak: MIKEL PAGADI, EGOITZ LASA eta NAGORE ARANBURU.

Zuzendaria: ANARTZ ZUAZUA.

Argiztapena: CARLOS SALAVERRI.

Argazkiak: JOSE HERNANDEZ LARBURU.

Ekoizpena: TXINTXETA PRODUKZIOAK.

Kontaktua: txintxeta3@gmail.com Tlf. 644 442 425

3086 postakutxa / 20080 Donostia

MIKEL PAGADI



2003 urtean hasi zen antzerkian *Rechace Imitaciones* saio amateurarekin.

Telebistan: 2005 urtean , telebistarako *Wazemanken* saioan hasi zuen bere gidoilari eta aktore ibilbidea.

2005-2010 bitartean *Wazemank*, *Noaoa*, *Wazemank 2.0* eta *Wazemank 3.0* saioetan gidoilari, koordinatzaile eta aktore lanetan aritu da.

2008 urtean Telmo Esnal eta Asier Altunaren gidaritzapean *Brinkola* telesailean lan egin zuen gidoilari eta aktore moduan.

2010ean ETB2 ko *Uiiiiii* saioan ere egin zituen aktore lanak.

2011 ETB1 eko *Finlandia* saioan gidoilari eta aktore moduan lan egin du.

Zinean 2009-an Anartz Zuazuarekin batera *El nunca lo haria* laburmetraia idatzi zuen. Nazioarteko zinemaldi ezberdinetan 27 sari jaso ditu. (Canal + saria eta abar)

Antzerkian: 2009 urtean Goringo konpainiarekin *Xabineitor* antzezlanean parte hartu zuen, Xabineitor beraren paperean.

Irratian: 2006-2009 arte Euskadi Irratiko *Dejavu* eta *Faktoria* saioetan kolaboratu du.

2010-2011 Euskadi irratiko *Oilategia* saioko sortzaile, gidoilari eta esatari bezala dabil lanean Jon Iraola eta Ilaski Serranorekin batera.

EGOITZ LASA



Aktore lanak: 2001. urtean Hankagorri taldearekin hasi zen, *Urbasako astronautak* eta *Trufaldinoren trufak* haurrentzako kale antzerkietan aktore moduan. 2003an Bederen1 taldearekin *Titibiliti* antzezlanean parte hartu zuen Inaxio Tolosaren zuzendaritzapean.

2004an hasita, Gorringo taldearekin *Tristek kontsolatzeko marmita*, *Munduko arrautza haundiena* eta *Joxepiren denda* haurrentzako antzezlanetan aritu zen aktore. Talde berarekin *Kutsidazu bidea Ixabel* obra arrakastatsuan hartu zuen parte Anartz Zuazuaren zuzendaritzapean.

2007an Trapu Zaharra taldearekin *Visa vis* antzezlanean hartu zuen parte. 2009an Gorringo taldearekin *Xabinaitor* antzezlanean parte hartu zuen Anartz Zuazuaren gidaritzapean.

Telebistan, *Sorginen laratza*, *Wazemank*, *Noaoa* eta *Finlandia* saioetan, aritu da aktore lanak egiten. 2008an On timek ekoiztutako *Brinkola* telesailean hartu zuen parte Telmo Esnal eta Asier Altunaren zuzendaritzapean aktore moduan eta 2010 ean *Mugaldekoak* telesailean ere aritu da aktore lanetan.

Zinean, 2001ean, Maru Soloresek zuzendutako *Dortoka uhartea* film laburrean aritu zen. 2005ean Fernando Bernues eta Mireia Gabilondok zuzenduta *Kutsidazu bidea Ixabel* filmean egin zituen aktore lanak eta 2009an Telmo Esnalek zuzendutako *Amona putz* laburmetraian ere aritu da. 2010ean Alberto Gorritiberearen zuzendaritzapean *Arriya* filmean aritu da eta 2011an Telmo Esnalen *Urte berri on amona!* pelikulan.

Gidoilari lanak. 1995-2009 urte artean Zarauzko Alproja antzerki talde amateurrean gidoilari taldean aritu da urtero obra berri bat sortzen. Telebistan azken urteotan *Wazemank*, *Noaoa*, *Wazemank 2.0* eta *Wazemank 3.0* gidoilari lanak egin ditu, *Brinkola* telesailean ere gidoilari lanetan aritu zen.

NAGORE ARANBURU



Aktore lanak, antzerkian : *Lamiak*, *Desperrados*, eta *Manolito Gafotas* (EAB-ren aktore berri onenaren saria jaso zuen) *A cuestras con Murphy* (EAB-ren antzerkiko aktore onenari saria jaso zuen) Baita ere *Natatxa* eta *Ni naiz Hektor, ni bakarrik* antzezlanetan lan egin du.

Telebistan, *Jaun ta jabe*, *Maite*, *Hau duk umorea*, *Irrikitan*, *Sorginen Laratza*, *La noche del escorpion* tv movie-a, *Wazemank* eta *Brinkola* saioetan aritu da aktore lanak egiten.

Zinean, *Ione sube al cielo*, *Yoyes*, *Aupa Etxebeste*, *Zeru horiek* (protagonista) eta *Eutsi* filmetan azaldu da. *El nunca lo haría*, *Amona putz* edo *Ahate pasa* laburmetraietan parte hartu ondoren, Telmo Esnalen *Urte berri on*, *amona!* luzemetraian protagonista izan da.

Gidoilari lanak antzerkian; *Hamar minutu gauerdiko* Azpeitiko topaketetako 1.saria jaso zuen. *Lotsa gabe* antzezlanaren euskarazko moldaketa etorri zen gero.

Gorringo taldeak eskatuta, Joxean Sagastizabalen *Kutsidazu*, *bidea Ixabel* nobelaren antzerkirako egokitzapena egin zuen. Eleberri berdinean oinarritutako filma eta telesaila etorri ziren gero. Horietan ere gidolari lanetan aritu zen.

Erase una vez...o casí testuaren sortze prozesuan parte hartu zuen, Oscar Terol eta Kike Diaz de Radarekin batera.

Xabineitor obra idatzi zuen antzerkirako Patxi Gallegoren komiki orijinalean oinarrituaz.

Telebistarako hainbat saiotan aritu da azken hamar urteotan gidolari lanean.

Sorginen Laratza, *Irrikitan* bakarriketa saioan, *Martin* telesailean...

Wazemank eta *Noaoa* saioko gidolari buru izan zen saio horien lehenengo lau urteetan. Zuzendari lanak ere egin zituen saio hauetan.

ETB 1en estreinatu zen *Brinkola* telesaileko trama eta gidoietan egon zen lanean, Telmo Esnal eta Asier Altunarekin batera.

TXINTXETA PRODUKZIOAK



Txintxeta antzerki zein telebistan eskarmentu handia duen sortzaile talde bat gara.

Euskal umorea herriz-herri, antzokiz-antzoki, eta kultur etxez kultur etxe zabaltzeko asmoarekin sortu gara. Gidoilari eta aktore gisa, antzerki, ikuskizun, aurkezpen eta ekitaldi desberdinak garatzen ditugu, gure ezaugarri diren euskara eta umorea oinarritzat hartuta. Udal eta kultur taldeei gure ikuskizunak herrian izateko aukera eta beren ekitaldi desberdinak umorez janzteko zerbitzua ere eskaintzen dugu.

Barrea izan bedi zuekin.

txintxeta3@gmail.com Tlf. 644 442 425 3086 postakutxa / 20080 Donostia

